

# ABILKI abisiniarrak

Salmenta Hitzarmena



Hazlea:

Sabin J. Bizkarralegorra Bravo

E-48011 Bilbo-Bizkaia-Euskadi

Europar Batasuna

Ph. +34 656755049

[www.abilki.com](http://www.abilki.com)

[sabin@abilki.com](mailto:sabin@abilki.com)

## Abilki\* **Argi**

Arraza:

**Abisiniarra**

Kolorea:

**Erbia**

Sexua:

**Emea**

FIFe Pedigri Zk.:

**(ES) ASFE LO XXXXX**

Mikrotxip Zenbakia:

X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---

# ABILKI abisiniarrak

## Salmenta Hitzarmena

**Alde biok adostu dugu goiko katua ondorengo baldintzetan jabegoz aldatzea.**



**Balioa: 1.300,00 EURO**

### Ordainketa

Ordainketa osoa katua erosleari eman baino lehen burutu beharko da edo, beranduen jota, ematerako edo jasotzerako unean. Balioaren 1/2-a kontratu hau onartzerako orduan ordaindu beharko da ondorengo kontuan banku transferentzia bat eginez:



LABORAL KUTXA, Euskadi (Estatu Espainiarra, Europar Batasuna)

**SWIFT (BIC):** CLPEES2MXXX

**IBAN:** ES74 3035 [REDACTED]

**Kontu Zk. :** [REDACTED]

**Kontuaren jabearen izena:** Sabin J. Bizkarralegorra Bravo

**Kontuaren jabearen helbidea:** azalean dagoen bera.

Erosleak, arrazoa edozein delarik ere, azkenean katuaren erosketan atzera egingo balu, hazleak balio osoaren erdiarekin geratuko da kalte-ordain modura.

### Ematea

Katuaren ematea eroslearen etxebizitzan gauzatuz gero, ematen bada, leku aldatzearen garraio eta esku-hartze gastu oro erosleak ordainduko du. Hazleak berak katua eramango badu, hazlearen garraio gastuak ere erosleak ordainduko ditu, aldeztu aurretik eroslearekin aurrekontua adostuz. Erosleak katua hazlearen etxebizitzan jaso dezake gain-kosturik gabe. Azken aukera honetan, erosleak hazleekin katua jasotzeko egun apropos bilatu eta adostuko du.

### Erabilpena

Katua lagunarterako saldu da. Beraz, ez du ugaltzeko helbururik eta horregatik dagoeneko antzaturik (husturik/zikiraturik) emango da. Katua erosterako unean katuaren linean hazleak ezagun dituen sortzetiko akatsen eta eritasunen berri jaso du erosleak. Horretarako hazleak katuaren bi gurasoen azterketa genetikoaren emaitzen kopia emango du, abisiniarretan ezagun diren eritasunen gainean.

### SALTZAILLeak bere gain hartutako bermeak:

#### Osasuna

2 urte bete aurretik katua genetika akats baten ondorioz hilko balitz, hazleak bermatzen du kalitate berdina duen beste katu batekin katua ordezkatzeko duela, beti ere eta bakarrik, akatsa ziurtagiridun autopsia baten erakusten bada. Era berean, hazleak bermatzen du kalitate berdina duen beste katu batekin katua ordezkatzeko duela, laborategi eta albaitari aditu banak ziurtatzen badute osasun zein genetika akatsen bat badela, hitzarpen honetako onarpen egunean indarrean dagoen FIFe-ko "Hazte eta Izen Emate Araudiko (*Breeding and Registration Rules*) I. eta II. eranskinetan agertzen diren genetika akats test posibleen artean. Kasu honetan katuaren ordezkapena egiteko, test horiek katuak 2 urte bete baino lehen egin beharko dira. .

# ABILKI abisiniarrak

## Salmenta Hitzarmena

### Ugaltze gaitasuna

Saltzaileak bermatzen du katua antzutua (hustua/zikiratua) izan dela.

Ondorengo baldintzek osasun berme guztien indargabetzea ekarriko dute:

- Katuen Leukemiaren (FeLV) eta "katuen sukarra"ren aurka (Rhinotracheitis Herpes Birusa, Calicivirus eta Panleukopenia -RCP) katua urtero txertatzen ez bada.
- Katua kanpoan eta askatasunez mugitzen bada.
- Katuak min fisikoa edota zainketa txarra inoiz jaso izan badu.

### Gaixotasunak

Katua ondorengoan aurka txertatua izan da:



- 1) Katu sukarra edo gripea (RCP), bere baitan txerto hauek dituenak: Rhinotracheitis (FVR, batzutan FHV bezala ere adierazia), Calicivirus (FCV) eta Panleukopenia (FPV). Lehen txertoa eta lehen bergogoratzea.
- 2) Klamidia (Felidoen Pneumonitis sortzailea). Lehen txertoa eta lehen bergogoratzea.
- 3) Leukemia (FeLV). Lehen txertoa, negativo testatu ondoren, eta lehen bergogoratzea.
- 4) Amorrua. Lehen txertaketa bakarrik.

Katuaren bi gurasoei ondorengo gaitzen testak egin zaizkie eta garbi daudela frogatu da: Leukemia birusa (FeLV), Felidoen Imunoeskasiaren Birusa (FIB edo katuen "GIB" a), Aldaka luxazio (Palletar Luxation), Erretina Endekapena (PRA), Pyruvate Kinase Gabezia (PK), Giltzurrun Polikistikoaren Gaixotasuna (PKD1) and Mucopolysaccharidosis (MPS).

Katakumearen gurasoak FIB eta FeLV testetan negatibo emaitzak dituzte, eta katua txertatua izan da birritan goian aipatutako 1,2 eta 3 txertoekin: lehen txertoa eta bergogoratze txertoa (3 astera). Amorruren aurkako txertoa behin eman zaio (urterokoa ez den beste bergogoratzerik ez da behar). Hemendik aurrera, erosleak bakarrik urteroko bergogoratze txertoa jarri beharko dio katuari, bai behintzat RCP eta FeLV-ren aurka. Klamidiaren aurka bakarrik da beharrezkoa ugalketara bideratutakoentzat. Eta Amorruren aurka bakarrik amorrua duten herrialdeetan biziko diren katuentzat eta hegazkinez bidaiatzea asmo duten katu guztientzako.

### EROSLEak bere gain hartutako bermeak:

#### Bersalmenta

Hazleari informatuko zaio katua bersaldua edo berkokatua bada.

#### Osasuna

Erosleak hazlea informatu behar du katuaren ongizateaz. Eritasun seriorik gertatuko balitzaio hazlea kontaktatuko da eta jakinarazi katua hilko balitz.

Erosleak beregain hartzen du katua egoki zaintzea eta beharrezko albaitari tratamenduak ematea, eta katua urtero txertatzea.

Erosleak debekaturik dauka katuari atzapargabetze albaitaritza ebakuntzarik egitea etxeko giza altzariak babesteko aitzakiarekin.

Katua ez da inoiz isolaturik edo kaiola baten biziko.

# ABILKI abisiniarrak

## Salmenta Hitzarmena

### Herentziazko akatsak

Erosleak hazlea jakinarazi beharko du katuak gara edo erakuts dezakeen edozein akatsez.

### Orokorrean

Hitzarmen hau sinatuz, saltzaileak eta erosleak, beronen baldintzak ulertu eta beroiekin ados daudela adierazten dute. Bi aldeek hitzarmenaren ale bat jaso dute. Hitzarmenarekin bukatzeko, katura erosleari ematerakoan, erosleari ere pasatuko zaizkio pedigria, pasaportea, genetika ziurtagiriak eta beharrezko albaitari ziurtagiriak (zilbro-ernia eta antzutzearrenak bezalakoak).

Eroslea eta hazlearen artean hitzarmen honen ulermenaren gaineko gatazkarik sortuko balitz, berau ASFE-ko Disziplina-Batzordearen aurrera (FIFe Espainia) eramango da.

**Bilbo, 20XX.eko Hilabetearen XX.**

Hazlearen sinadura

Eroslearen sinadura

BIZKARRALEGORRA BRAVO Sabin J.

**ABIZENA(k) Izena**

[Redacted]

*Espainiar Estatuko NA zenbakia:*

[Redacted]

**Frantziar** Estatuko NA zenbakia: :

[Redacted]

[Redacted]

[Redacted]

*E-48011 Bilbo (Bizkaia)*

*Euskadi, EB*

[Redacted]

[Redacted]

[Redacted]

Tl. +34-656 755 049

**Tl. +33-(0)** [Redacted]

[sabin@abilki.eus](mailto:sabin@abilki.eus)

[Redacted]@ [Redacted].fr

### Erantsita:

Guraso biren informazioa: Pedigriak, Genetika Azterketen Emaizak

Saldutako katuaren Pedigria

Jabe-aldatze ziurtagiria

Pasaportea

Osasun Ziurtagiria

Estalki bat, bere eta bere nebarreben usainduna.

Pentsu lehorra pare bat egunetarako.

Are apur bat

Elkarrekintzako jostailu bat

Bi klikagailu berrindartze baikordun jolaserako edo trebatzerako.